



Bigarren Lehendakariordea eta Lan eta Enpleguko Sailburua

Vicelehendakari Segunda y Consejera de Trabajo y Empleo

AGINDUA, 2024KO MARTXOAREN 8KOA, BIGARREN LEHENDAKARIOEDE ETA LAN ETA ENPLEGU SAILBURUARENA, EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO SEKTORE PUBLIKOAN 2024KO MARTXOAREN 12RAKO DEITUTAKO GREBAK DIRAUEEN BITARTEAN ERKIDEGOARI EMAN BEHAR ZAIZKION EZINBESTEKO ZERBITZUAK MANTENDUKO DIRELA BERMATZEN DUENA.

ELA, LAB, CCOO, STEILAS eta ESK sindikatuak greba deitu dute Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoan 2024ko martxoaren 12rako.

Grebarako deialdiaren helburuak Lan Agintaritzari bidalitako jakinarazpenean jasota daude. Jakinarazpen hori hasitako espedientean dago.

Espainiako Konstituzioaren 28.2 artikulua langileen greba egiteko eskubidea onartzen du, langileek beren interesak defenda ditzaten, horixe baita egungo zuzenbide estatu sozial eta demokratikoak oinarri dituen funtsezko eskubideetako bat. Konstituzioak, beraz, berdin babesten du greba-eskubidea eta beste zenbait eskubide garrantzitsu, hala nola bizia, osotasun fisikoa, osasuna, hezkuntza, joan-etorri askea, eta informazio askatasuna, besteak beste. Hain zuzen, Konstituzioak bete-betean babesten ditu, bai eskubide horiek guztiak, baita greba egiteko eskubidea ere.

Beraz, greba egiteko eskubidea baliatzeak talka egin dezakeenez herritarren gainerako funtsezko eskubideekin, eta Konstituzioaren 28. eta 37. artikuluetan xedatuta dagoenaren arabera, nahitaezkoa da neurri egokiak ematea Erkidegoarentzako ezinbesteko zerbitzuak bete daitezen, auzitan dauden eskubideetako bat bera ere edukirik gabe gera ez dadin.

Hala ere, aurreko premisa gorabehera, begien bistakoa da ezen, funtsezko eskubideak mugatzen dituen edozein neurri konstituzionala izan dadin proportzionaltasunaren printzipioa zorrotasunez eplikatuz hartu behar dela, eta horretarako hiru baldintza bete behar ditu neurri horrek: neurria aplikatuz proposatutako helburua lortu ahal izatea, hots, "egokitasun-judizioa" deritzona; egitatea aztertuta ondorioztatu izana ez dagoela neurri apalagoren bat helburu hori eraginkortasun berarekin lortzeko, hau da, "beharrizan-judizioa" deritzona; eta, azkenik, neurria edo konponbidea orekatua edo neurtua izatea, haren aplikazioaren ondorioz guztion intereserako onura edo abantaila gehiago eragiten direlako auzian dauden beste ondasun edo balioetarako eragiten diren kalteak baino, hau da, "proportzionaltasun-judizioa, zehazki ulertuta". Konstituzio Auzitegiak zenbait alditan adierazi du haren iritzia gai horren inguruan, honako epai hauen bitartez, besteak beste: 122/1990, 123/1990, 8/1992, eta 126/2003.



Erabaki horietatik ondorioztatu behar dugu erkidegoarentzat funtsezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeak mugatu egiten duela grebarako eskubidea baliatzeko aukera, eta horretarako nahitaezkoa dela interes desberdinak kontuan hartuta zuhurtasunez jokatzea. Alegia, ziurtatzeak berme gisa balio behar du, eskubide kontrajarrien ezinbesteko koordinaziotik abiatuta; betiere ulertuta grebalarien eskubidea mugatu beharko dela — amore eman, Goi Auzitegiaren hitzetan—, haien eskubideak grebaren bidez babesteak ezinbesteko zerbitzua jasotzeko eskubidearen komunitate/pertsona titularrari eragiten dion edo eragin liezaiokeen kaltea larriagoa bada grebalarien errebindikazio edo eskakizunen arrakastarik ez izateak eragingo lukeena baino. Hori guztia dela-eta, greba-deialdi honen aurrean, haren garapenak dituen ezaugarri zehatzak hartu beharko dira kontuan

Horregatik guztiagatik, greba-deialdi honen aurrean, kontuan hartu beharko dira deialdiaren garapenaren ezaugarriak: bata bestearen segidakoak ez diren bi egun, 2023ko urriaren 25ean eta abenduaren 19an, lanaldi osoan; eta, kasu honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren jarduera-eremua.

Deialdian bertan jasotzen den bezala, grebak honako hauei eragiten die: "sektore publikoaren zerbitzura dauden langile guztiei (funtzionarioak, lan-kontratudunak eta estatutupekoak), eta Estatuko, autonomia-erkidegoko eta toki-administrazioko jarduera guztiei, merkataritza-sozietate publikoei, enpresa-erakunde publikoei eta Euskal Autonomia Erkidegoaren eremu geografikoaren barruan kokatutako tokiko, autonomia-erkidegoko eta estatuko sektore publikoko gainerako organismo publiko eta erakundeei, haien mendeko administrazioa edozein dela ere".

Deialdia egin duten sindikatuek emandako datuen arabera, deialdiak 150.000 langile ingururi eragiten die.

Azaldutako guztiagatik, Konstituzioaren 15. eta 43.1, 19., 20., 27., 35. eta 24. artikuluetan jasotako bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako, osasunaren babeserako, hezkuntzarako, lurraldean askatasunez zirkulatzeko, lanerako, informaziorako eta babes judizial eragingarria izateko eskubide konstituzionalak botere publikoei dagozkie, prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, eta ezin dira geratu grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean behar den babesik gabe.

Hori dela eta, Euskal Autonomia Erkidegoko Gobernuak gutxieneko zerbitzuak ezarri behar ditu, komunitateari funtsezko zerbitzuak bermatzeko, ondoren adierazten diren eta agindu honetan zehazten diren sektoreetan.

OSASUN-SEKTOREA

Osasuna babestea oinarritzko eskubideetako bat da edozein zuzenbide-estatutan. Gaur egun, herritarrek gutxieneko osasun-prestazioak eskatzeko duten eskubidea da, giza duintasunaren eta estatu bakoitzaren garapen sozial eta ekonomikoaren arabera. Hala, Giza Eskubideen Adierazpenak (NBE, 1948), 25.1 artikuluan, honako hau dio: «pertsona orok du osasunerako eta ongizaterako eskubidea, eta, bereziki, laguntza medikorako eta beharrezko gizarte-zerbitzuetarako eskubidea». Ildo beretik doaz Europako Kontseiluaren Gutun Sozialaren 11. artikulua (Turin, 1961) eta Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Nazioarteko Itunaren 12. artikulua (NBE 1966).

Greba-eskubidearen eta bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko eskubide konstituzionalen artean sortzen den gatazka, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotzen dena, beraz, azken horiei eutsiko zaiela bermatu beharrak baldintzatuko du.

Osasun-zerbitzuek pertsonen osasuna eta bizitza zaindu behar dituzte. Ondorioz, eta greba-deialdiari dagokionez, argudio gutxi edo bat ere ez da behar larrialdi-zerbitzuak erabat mantentzea oinarritzeko; izan ere, zerbitzu horiek ahalik eta azkarren jarduten ez badute, baliteke giza bizitzak ere galtzea. Era berean, «ospitaleratutako pazienteak behar bezala artatzeak» berekin ekarriko du ospitale bakoitzean ezinbesteko pertsona-kopuru bat zerbitzua ematea, gaixoek behar bezala emandako sendagaiak, higiena eta elikadura behar bezala jasotzen dituztela bermatzeko gai dena, hau da, haien osotasun fisikoa zein morala hondatu ez dadin behar den laguntza.

Osasun-arloko lehen mailako arretari dagokionez, gai baketsua da funtsezko zerbitzutzat hartzea, bereziki ospitalez kanpoko larrialdiei estaldura ematen dien neurrian. Jarduera-sektore horretan gutxieneko zerbitzuak ezartzeari dagokionez, honako hau hartu behar da kontuan: Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salaren 2012ko urriaren 3ko Epaia, 2012ko martxoaren 29ko hogeita lau orduko greba orokorrerako 2012ko martxoaren 23ko Aginduan lehen mailako arretarako ezarritako gutxieneko zerbitzuen deuseztasuna deklaratu zuena; Auzitegi beraren 2013ko martxoaren 5eko Epaia, 2012ko irailaren 19ko Aginduan lehen mailako arretarako finkatutako zerbitzuen deuseztasuna deklaratu zuena 2012ko azaroaren 14rako eta 2013ko maiatzaren 30erako greba orokorreko deialdien aurrean, biak 24 ordukoak; eta OSAKIDETZA-Euskal Osasun Zerbitzuko langileentzat 2016ko ekainaren 14ko greba-deialdia, txanda guztietarako bi orduko ordutegi-tarteetan. Zerbitzu berberak ezarri ziren 2018ko martxoaren 8ko greban. Azken horretan, hala ere, eta pertsonen oinarritzko eskubideak jurisdikzioan babesteko prozedura bereziaren bidez errekurritu baziren ere, Salak Zuzenbidearekin bat zetozela ikusi zuen, interpretatu ondoren, eta, beraz, horiei eutsiz, azken deialdiaren aurrean – 2019ko

martxoaren 8an-, egokiagoa zen idazketa bat egiten saiatu ziren, baketsua izan zena eta orain errepikatzen dena.

Larrialdi-zerbitzuei eta Etengabeko Arretako Guneei dagokienez (aurrerantzean, EAG), Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salaren 2012ko urriaren 3ko Epaiak ezetsi egin zuen errekurtsogileak zerbitzu horietarako ezarritako gutxieneko zerbitzuak gehiegizkotzat jotzeko zuen asmoa (zerbitzu horien % 100 ezarri ziren), eta honako hau argudiatu zuen: «larrialdi-zerbitzuen izaerak berak eta EAGko zerbitzuen xedeak justifikatu egiten dute, aztergai dugun eremuan, osasunaren eremuan, osotasun fisikoarekin eta bizitzeko eskubidearekin, errekurritutako aginduan jasotako gutxieneko zerbitzuak ezartzea ...». Beraz, eutsi egiten zaie zerbitzu horiei.

Osasun-sektore horretan bertan, kontuan hartu behar da 2011ko uztailetik aurrera funtsezko erreforma bat gertatu zela erabiltzaileen arretan, CALL CENTER izeneko sistema sartu baitzen. Horrek, nahiz eta osasun-arretarik ematen ez duen berez, zerbitzua benetan emateko aukera ematen du, erabiltzaileak arreta horrekin duen lehen kontaktua delako eta 4/8 Osasun Kontseiluari dagokionez bereziki nabarmena delako. Lehen Mailako Arretako Erizaintzako langileek artatutako telefono-zerbitzua da. Zerbitzu horretan, harengana jotzen duten erabiltzaileen beharrak baloratzen dira, eta egoera partikularraren arabera behar duten gailura bideratzen dira. Horrela, Larrialdietara bidera dezakete anbulantzia bat etxera bidaliz, edo Etengabeko Arretako Gunera, abisua zuzenean etxera kudeatuz. Argi dago, beraz, call center-a osasun-larrialdia eragin dezaketen deien iragazkia dela, Osasun Kontseiluan kolapsoa saihesteko eta ohiko deien artean osasun-lehentasuna duten deiak diluitzeko. Horretaz gain, beste zerbitzu batzuk ere eskaintzen ditu, hala nola aurretiko hitzordurako deien arreta, IVR telefono-sistema duen operadore birtuala, zenbaki generikoetatik datozen aurretiko hitzorduko deien arreta, zerbitzuen informazio orokorra eta beste batzuk. Azkenik, erkidego honetako zentro guztietako O-Sarean zerbitzu eta aplikazioen funtzionamenduari buruzko barne-gorabehera teknikoaren kudeaketaz arduratzen da. Sistemaren funtzionamendu teknikoaren berme hori Osasun Aholku zerbitzuarekin batera izan da, bereziki, gobernu-agintaritzak hau funtsezko zerbitzutzat hartzera eraman duena, bizitzeko eta osasunerako eskubideari lotuta dagoen aldetik.

2014an, call center korporatibo zentralizatua bi sistemak ordezkatu dute:

- a) Osasun-erakunde batzuetan, telefono-jauziko dei-sistema bat ezarri da anbulatorioen artean, eta horretarako ez da beharrezkoa izango gutxieneko zerbitzu espezifikorik finkatzea.
- b) Arabako ESiko, Donostialdeko ESiko, Ezkerraldea-Enkarterri-Gurutzetako ESiko, Bilbo-Basurtuko ESiko, Uribeke ESiko, Debabarreneko ESiko eta Bidasoako ESiko, Tolosaldeko ESiko, Barakaldo-Sestaoko ESiko eta Barrualde Galdakaoko ESiko erakunde sanitarioetan, call center-sistema bat ezarri da, call center korporatibo zaharraren funtzio berberak betetzeko, baina erakunde horietako bakoitzera mugatuta.

Bigarren call center-mota horretan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko beharra, lehenengo call center korporatiboaren funtzio berberak garatzeaz gain, osasun-erakunde bakoitzera mugatuta egotearen arrazoia da, lehen adierazi dugun bezala, telefono bidezko arretaren garrantzia, funtsezkoa baita asistentzia-antolamenduan, herritarrek osasun-sistemarekin harremanetan jartzeko gehien erabiltzen duten kanaletako bat baita. Sistema horren bidez, gainera, bidezko banaketa egiten da telefono bidezko alde aurreko hitzorduaren eskarian eguneko ordu desberdinetan zehar, zerbitzuak lehen orduan saturatzea saihestuz eta telefonoz artatzen ez diren pertsonak osasun-zentzora bertaratzea saihestuz.

Ezarri beharreko gutxieneko zerbitzu zehatzei dagokienez, kontuan izan behar da garai bateko call center korporatiboak urteko egun guztietan egiten zuela lan, baina plantilla bat zuen astelehenetik ostiralera eta beste bat larunbaterako. Hala ere, gaur egungo call center zerbitzua, konfiguraturik geratu den bezala, ez da larunbatetan ematen, eta, beraz, gutxieneko zerbitzuak larunbat bateko zerbitzuetara mugatzen dira, EAEko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzien Salak 2013ko maiatzaren 29ko Autoan erabaki eta 2013ko irailaren 25eko Epaia berretsi zuen bezala. Gaur egun, ez da 5/8 zerbitzurik ezarriko. Horregatik guztiatik, zerbitzu hori emateko, Osakidetzako Zuzendaritzak ematen duen informazioaren arabera, egungo plantillaren % 50ek egin behar du, eta, beraz, zerbitzu horiek eman ohi dituzten langileen ehuneko hori ezarri da gutxieneko zerbitzutzat.

Inguruabar horietan guztietan oinarrituta, COVID-19ak eragindako pandemia hasi aurreko greba-deialdietan, erreferentziazko zerbitzuari eragiten ziotenetan, honako agindu hauek eman ziren: 2014ko azaroaren 4ko Agindua, 2015eko apirilaren 21eko Agindua, 2016ko ekainaren 10eko Agindua, 2018ko otsailaren 27ko Agindua, 2019ko otsailaren 28ko Agindua, 2019ko irailaren 24ko Agindua eta 2020ko urtarrilaren 20ko Agindua, gaur egungoaren antzeko deialdi baten aurrean, non gutxieneko zerbitzuak ezarri baitziren ehuneko horretan. Berrikiago, 2023ko urriaren 23ko Agindua eman da, euskal sektore publikoan deitutako greba baterako zerbitzu berberak ezarri zituen, bai eta 2023ko azaroaren 28ko Agindua ere, greba orokor baterako emana.

LARRIALDIEN ETA SEGURTASUNAREN SEKTOREA

Larrialdiei aurre egiteko eta bide-segurtasuneko zerbitzuek (SOS DEIAK, larrialdiei aurre egiteko eta meteorologiako zerbitzuak, suhiltzaileak, suteak prebenitzeko eta itzaltzeko zerbitzuak, salbamenduko zerbitzuak, larrialdietako igorgailuak eta komunikazioak, errepideen mantentze-lanak, neguko bide-zaintzako zerbitzua barne, eta urtegi, ibai eta mendietako larrialdiak, Babes Zibila, Euskadiko Trafikoa Kudeatzeko Zentroa...) eta Segurtasun Saileko komunikazio- eta informatika-arloak ordaintzen dituzten ezinbesteko prestazioak jasotzeko erkidegoarentzako funtsezkotzat jotzen dira, hain zuzen ere larrialdi bat ez behar bihur ez dadin eta horien aurrean jardun ez dadin. Bizitzeko, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna

babesteko eskubide konstituzionalak, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotakoak, botere publikoei dagokie horiek bermatzea, prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, eta ezin dira geratu behar bezalako babesik gabe grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean. Hori dela eta, sektore hori funtsezkotzat jo behar da komunitatearentzat, eta, beraz, ezinbesteko langileek ematen duten prestazioa premia onartutzat eta atzeraezinezkotzat hartu behar da. Horretarako, urteko sasoi horretako jaiegun baten baliokide diren langileak mantenduko dira, Segurtasun Saileko komunikazioen eta informatikaren arloan izan ezik, horietan teknikari bakarra egotea nahikotzat jotzen baita.

Aipamen berezia merezi du SOS DEIAKek. Kasu honetan, funtsezko zerbitzu horri erantzun behar dioten gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, kontuan hartu behar da zerbitzu horien telefono bidezko arretaren ohiko dimentsionamendua eguneroko deien kopururako pentsatuta dagoela, normaltasun baldintzetan. Beraz, zerbitzua emateko gutxieneko edo oinarrizko pertsona-kopuruari erreparatzen zaio, larrialdi-egoerak aurreikusi ezinak direlako eta ezin direlako planifikatu.

Horregatik guztiagatik, zerbitzua mantentzeko eska daitezkeen gutxieneko zerbitzuek egun arrunt baterako planifikatutako kopurua izan behar dute; izan ere, kopuru txikiagoa izanez gero, herritar baten deia linea edo operadoreen saturazioagatik ez jasotzea eta pertsona baten, batzuen edo askoren bizitzak salbatzeko baliabideen atzerapena edo mobilizaziorik eza eragitea ekarriko luke. Ezinezkoa da zain dauden deiak lotzea, eta edozein alerta galtzea saihestu behar da; izan ere, kasu horretan, larrialdi-zerbitzuek ez lukete esku hartzeko behar den informazioa izango. Horrez gain, beharrezkoa izan liteke, zerbitzuaren ohiko zerbitzua ez ezik, unean uneko errefortzu bat ere eskatzea, dela larrialdi-plan bat aktibatzeagatik, dela greba-egunarekin bat etor daitezkeen larrialdi larriko kasuak gertatzeagatik. Hori dela eta, beharrezkoa eta ezinbestekoa da greban zehar ohiko egun baterako aurreikusitako langileen % 100 estaltzea, bai operadoreen lanpostuetan, bai ikuskatzailetzakoetan, horiek ere koordinazioaz gain, telefono bidezko arreta ematen baitute, eta haiek arduratzen baitira lan-txanda hurrengo txandara transferitzeaz, lehen azaldu den bezala. Zerbitzuaren dimentsio hori indargarri izan daiteke gerora sortutako larrialdi larrietan.

Euskal Autonomia Erkidegoko Larrialdiak Koordinatzeko Zentroan eta contact center sektorean deitutako azken grebetan, 2017ko martxoaren 3ko Agindua eta 2017ko martxoaren 15eko Agindua eman ziren, hurrenez hurren, eta egun arrunt baterako aurreikusitako langileen % 100 ezarri ziren gutxieneko zerbitzu gisa. Era berean, 2020ko urtarrilaren 30erako greba orokorrerako deialdia egin zen, sektore honetan gaur egungoarekin pareka daitekeena. Era berean, 2023ko urriaren 23an Agindua eman zen, euskal sektore publikoan deitutako greba baterako gutxieneko zerbitzu horiek berak ezarri zituena.

GIZARTE-ZERBITZUEN SEKTOREA

Gizarte-zerbitzuak, bestalde, mendekotasun- eta/edo kalteberatasun-egoeran dauden pertsonen gutxiengo bizi-baldintza duinak eta kalitatezkoak bermatzen dizkieten babes-neurrien multzo gisa daude eraturik. Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako eskubide konstituzionalak, bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasuna babesteko eskubideak, botere publikoei dagokie eskubide horiek bermatzea, prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatzeko neurrien bidez, eta ezin dira geratu behar bezalako babesik gabe grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean. 10.1 artikulua ezartzen du pertsonaren duintasuna ordena politikoaren eta bake sozialaren oinarria dela. Era berean, Konstituzioaren 49. artikulua botere publikoei agintzen die «aurreikusteko, tratatzeko, errehabilitatzeko eta integratzeko politika bat egitea urritu fisiko, sentsorial eta psikikoei, eta behar duten arreta espezializatua eskainiko diete, eta bereziki babestuko dituzte titulu honek herritar guztiei ematen dizkien eskubideez gozatzeko».

Ukaezina da egoitza-arretako zerbitzuetan (tutoretzapeko apartamentuak, etxebizitza komunitarioak eta egoitzak), eguneko zentroetan (ezintasun fisiko eta psikikoak dituzten pertsonak artatuz), etxez etxeko laguntza-zerbitzuetan eta adingabeen egoitza eta etxebizitza komunitarioetan eta esku-hartze sozialeko zentroetan lan egiten dutenek egiten duten jarduerak garrantzi sozial handia duela. Zerbitzu hori jasotzen duten pertsonen nekez balia daitekeen kolektiboa osatzen dute, beren egoera subjektiboa eta pertsonala kontuan hartuta. Beraz, horrelako grebak, 2024 martxoaren 12an, sektore honetan gutxiengo zerbitzurik finkatu gabe, berekin lortu nahi den helburua baino kalte handiagoak eragin ditzake, egoera horietan pertsonen osasuna eta segurtasuna arriskuan jar baitaitezke.

Hala ere, kontuan izan behar da zerbitzu horiek ematean garatzen diren funtzio guztiak ez direla funtsezkoak. Halakotzat hartu behar dira «zuzeneko arretako zerbitzuak» deiturikoak, artatzen diren pertsonen oinarriko zaintza pertsonalak mantentzen direla bermatzera bideratuta daudenak. Zuzeneko arretako zerbitzuen barruan, arreta sanitarioaz eta arreta geriatrikoaz gain, honako hauek ere badaude: otorduak, hidratazioak eta medikazio-hornidurak prestatzea eta zerbitzatzzea, siesta terapeutikoak egitea, eta, mendekotasun-egoeraren arabera, higiene pertsonala, altxatzeko, garbitzeko, janzteko edo elikagaiak irensteko laguntza. Zeregin horiek zerbitzuaren erabiltzaileen, batez ere mendekotasun handia dutenen, osasun txarra babesteko beharrezkoa den tratamendu asistentzial integralaren parte dira. Era berean, eremu biopsikosoziala mantentzea eta kontserbatzea zer den bermatu behar da.

Zentro horien ohiko funtzionamenduak, pertsonen jarduera funtzionala eta ziklo biologikoak kontuan hartuta, banaketa irregularra du egunean zehar intentsitatean, eta jarduera handiagoa ematen da goizeko lehen orduetan (jaikitzea, higiene pertsonala, janzteak, medikazioa, gosaria, etab.), eguerdiko bazkalorduan, bai eta eguneko azken orduetan ere (afaria, oheratzea, pixoihalak aldatzea, botikak, etab.), eta horietan arreta

pertsonalizatu handiagoa behar da gerokultoreen aldetik. Horren ondorioz, ordu horietan beharrezkoa da langile horien zuzkidura handitzea, eguneko gainerako orduetarako ezarritako oinarrizkoena indartzeko, bertan bizi diren pertsonen beharrei erantzuteko jarduera txikiagoa baita.

Premisa horietatik abiatuta, greba-deialdi honen aurrean, honako hau ezarri behar da: zuzeneko arreta ematen duten gerokultoreen edo antzekoen % 50ek zerbitzuak ematen dituztela, otorduetako ohiko ordutegian izan ezik, eta goizeko 8: 00etatik 10: 30era eta 20: 00etatik 22: 00etara. Horietan, ehuneko hori % 10 igoko da, eta erabiltzaileen profila, % 70 baino gehiago, II. edo III. mailako mendetasun-maila aitortua duten egoitza eta etxebizitza komunitarioetan soilik, gerokultoreen edo antzekoen profila % 70 izango da. Kuantifikazio hori 2018ko martxoaren 8ko greba orokorraren harira Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak 218/2018 prozeduran 2018ko uztailaren 18an emandako epaiaren arabera egiten da. Era berean, gaueko txandan, zuzeneko arretako langileen % 100ek eman beharko du zerbitzua, eta egin beharreko zereginak "zuzeneko arreta" gisa egituratutakoak baino ez dira izango.

Adierazi den bezala, zuzeneko arretaren funtsezkotasun-irizpide bera aplikatu behar zaie eguneko zentroei ere, oro har egoitzetan baino langile gutxiago baitituzte. Horregatik, zuzeneko arretako zerbitzuak zuzeneko arreta hori ematen duten langileen % 50ekin mantendu beharko dira, gosariaren eta bazkariaren ohiko ordutegian izan ezik, orduan ehuneko hori % 10 igoko baita.

Zentro horietan, gainera, ezinbesteko zerbitzutzat hartu behar da mendetasun-egoeran dauden erabiltzaileen garraioa, haietara egiten dituzten joan-etorriak (eta aurreko paragrafoan aipatutako funtsezko zerbitzuetara iristeko) ezin badira beste garraio bide alternatibo batzuetan egin, haien mugikortasun-gaitasunetara behar bezala egokituta egon behar baitute. Bestela, pertsona horiei ez zaizkie arreta eta zerbitzu asistentzialak, terapeutikoak eta sanitarioak emango, pertsona horien «eguneroko bizitzako oinarrizko funtzioak» direlakoak prebenitzeko, mantentzeko eta hobetzeko (Autonomia pertsonala sustatzeari eta mendetasun-egoeran dauden pertsonak zaintzeari buruzko abenduaren 14ko 39/2006 Legearen 24. artikulua).

Horri dagokionez, gobernu-agintaritzak horrek gutxieneko zerbitzuak ezartzen zituen, ehuneko jakin bat finkatu gabe, eta nahikotzat jotzen zuen zerbitzuaren «helburuko» ezarpena, adierazitako baldintzetan. Hala ere, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko Epaiak, 2013ko maiatzaren 30eko greba orokorrerako ezarritako gutxieneko zerbitzuen aginduari buruzkoak, zerbitzuaren funtsezkotasuna aitortu bazuen ere, ulertu zuen xedapenak ez zuela motibaziorik «greba-eskubidea mugatzearen proportzionaltasunaren ikuspegitik», eta, beraz, adierazi behar zela langileen zein ehunekok eman behar dituen garraio-zerbitzu horiek.

Erabiltzaileen ezintasunengatik, zerbitzua gidari batek eta begirale edo laguntzaile batek ematea behar-beharrezkoa den heinean, ezinezkoa da % 100etik beherako ehunekoa ematea. Bestalde, kasu horietan ere ezin da egin beharreko garraioaren ehuneko-murrizketarik ezarri, zerbitzua ematen bada ere intentsitatea txikiagoa izan dadin; izan ere, horrek langile horiek egin beharreko lanaldia luzatzea ekarriko luke, ohikoa baino gehiago. Beraz, garraio bereziarekin egiten den zerbitzuaren funtsa bermatzeko behar den prestazioaren ondorioz, langile horietako batzuek, zerbitzu hori egin dezaketen bakarra izateagatik, erabat mugatuta izan dezakete grebarako eskubidea, salbu eta erabiltzaileen mugikortasun-gaitasunetara behar bezala egokitutako garraio bide alternatiboak batera badaude.

Bestalde, etxez etxeko laguntza-zerbitzua Gizarte Zerbitzuei buruzko abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 22.1.2 artikuluan jasotako gizarte-zerbitzua da, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Katalogoan jasotako zerbitzu eta prestazio ekonomikoen artean. Laguntza pertsonala, orientazioa edo eguneroko bizitzako oinarrizko jarduerak zuzenean egitea hartzen ditu barne, hala nola: jaikitzea/oheratzea, janzteia, etxeko garbiketa, arropa garbitzea eta lisatzea, ontziteria garbitzea, eguneroko higie pertsonala, elikadura, medikazioaren kontrola, mugikortasuna eta joan-etorriak, familiaren antolamenduan laguntzea, elikagaiak erostea, janaria prestatzea eta zerbitzu honen helburuak lortzeko beharrezkoak diren beste jarduera osagarri batzuk, bai eta eguneko zentroetara edo osasun-zentroetara etxetik kanpo laguntzea ere. Zerbitzu horien onuradun dira, hainbat mailatan, bakarrik dauden edo mendekotasuna duten adinekoak, eta, beraz, babes berezia merezi duten zerbitzuak dira, Konstituzioaren 15. eta 43.1 artikuluetan jasotako bizitzarako, osotasun fisiko eta moralerako eta osasunaren babeserako eskubide konstituzionalak bermatze aldera. Eskubide horiek bermatzea botere publikoei dagokie, prebentzio-neurrien bidez eta beharrezko zerbitzuak emango direla ziurtatuz, eta horiek ezin dira behar bezalako babesik gabe geratu grebarako eskubidea legitimoki gauzatzearen aurrean.

Adingabeen egoitzei, etxebizitza komunitarioei eta esku-hartze sozialeko zentroeiei dagokienez, egoiliarren bizitza, osasuna, hezkuntza eta segurtasuna eta osotasuna bermatu beharko dira, eta, beraz, eskubide konstituzional horiek bermatzen dituzten gutxieneko zerbitzuak mantentzearen mende egongo da greba egitea. Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren 2013ko maiatzaren 29ko Autoak, 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan ezarritako lanegun bateko gutxieneko zerbitzuak ordeztu zituen inoren kargura ez dauden adingabeen zentroetarako eta esku-hartze sozialeko zentroetarako. Bestalde, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2013ko irailaren 25eko 480/2013 Epaiak baliogabetzat jo zituen 2013ko maiatzaren 27ko Aginduan adingabeko lagunduen egoitzetarako ezarritako gutxieneko zerbitzuak, lanegun batekoak, eta bidezkotzat jo zuen gutxieneko zerbitzuak asteburu batekoa izan behar zuela.

HEZKUNTZA SEKTOREA

Hezkuntza-esparruari dagokionez, honako premisa hau hartu behar da abiapuntutzat: hezkuntzarako eskubidea Konstituzioaren 27. artikuluan aitortutako oinarrizko eskubidea da, eskubide hori zentzu zabalean ulertuta, unibertsitate-hezkuntza barne, Konstituzio Auzitegiak 26/1987 epaian (4. OJ) adierazi zuen bezala: «irakaskuntzarako oinarrizko eskubide baten tratamendua, unibertsitate-bertsioa, ez da oinarrizko zerbitzuak finkatzeko sistematik kanpo geratzen, ikastetxe horietan lan egiten duten langileek greba-eskubidea baliatzen duten kasuan. Ondorioz, ezin da esan funtsezko zerbitzu horiek ezartzeak Espainiako Konstituzioaren 28. artikulua, greba-eskubidea, urratzen duenik».

Aipamen berezia merezi dute hezkuntza bereziko zentroek; izan ere, nahiz eta ikastetxeak izan, bereziki babesgabea eta kaltebera den kolektibo bati zuzenduta daude, eta kolektibo horren izaera lausotu egiten da, gizarte-zerbitzutzat hartzera hurbildu arte. Horrek tratamendu berezia eskatzen du eremu guztietan.

Bermatu beharreko funtsezko zerbitzuak zeintzuk diren zehazteko eta, beraz, hezkuntza-eremuan gutxieneko zerbitzuak ezartzeko, kontuan izan behar da greba-deialdiak sare publikoko ikastetxe guztiei eragiten diela, bai eta funtzioak eta hezkuntza-eskumenak garatzen dituzten langile guztiei ere – funtzionarioei zein lan-kontratudunei–.

Deitutako grebaren eremua kontuan hartuta, hezkuntza-zerbitzuaren esparruan, hezkuntza-funtzioak eta -eskumenak betetzen dituzten sektore publikoko langile publiko eta lan-kontratudun guztiak sartzen direla ulertu beharko da. Zehazki, eragin eremua honako hau izango litzateke: unibertsitateaz kanpoko hezkuntza arautua ikastetxe publikoetan; Haurreskolak Partzuergoa eta udal titulartasuneko haurtzaindegiak; Euskal Herriko Unibertsitatea, Goi Mailako Musika Ikastegia (MUSIKENE) eta udal titulartasuneko Musika Eskolak; eta Hizkuntza Eskola Ofizialak.

Grebako egun bat dela kontuan hartuta ere, ikastetxeak irekitzea nahitaezkoa eta beharrezkoa da grebarekin bat egiten ez duten langileek Konstituzioaren 35. artikuluan aitortzen den lanerako eskubidea baliatzeko. Hori dela eta, gobernu-agintaritzak gutxieneko zerbitzutzat jotzen du ikastetxeetara eta lotutako eraikinetara sartzeko kontrola bermatzea, gutxienez grebarako eskubidea ez erabiltzea erabakitzen duten langileen eta ikasleen sarbidea zaintzeko, ikastetxeak ireki ezean erabat eta justifikaziorik gabe eragotziko bailitzateke lanerako eta hezkuntzarako eskubide korrelatiboa.

Era berean, zenbait ikastetxek desgaitasun fisikoak, psikikoak edo sentsorialak dituzten pertsonak artatzen dituzte; garapenaren nahasmendu orokorrak; mugitzeko desgaitasuna; ikusmen-desgaitasuna; gor-itsutasuna; sortzetiko eta jatorri genetikoko nahasmenduak; jokabide-alterazioei lotutako nahasmendu larriak, eta abar, gela normalizatuei esleituak.

Pertsona horiek, bai eskola-garraioan, bai ikastetxean dauden bitartean, Hezkuntza Laguntzako Espezialistek (HLE) artatzen dituzte, hau da, autonomia pertsonalaren eta sozialaren eremuan oztopoak eta premiak dituzten ikasleentzat eta mugimen-, autonomia-, osasun- eta segurtasun-esparruko oinarrizko konpetentziatarako sarbidean oztopoak eta premiak dituzten profesionalentzat. Hezkuntza-laguntzako espezialistak -edo horiekin parekatutako langileak- ez badaude esleitu zaizkien ikasleekin, ez dira bermatuta geratuko ikasle horien autonomia pertsonalarekin eta segurtasunarekin lotutako funtzio oinarrizkoenak, bai ikasgelan, bai patioan, bai jantokian, bai eskola-garraioan. Beraz, arreta horien beharrik ez duten gainerako ikasleekiko baldintza-desberdintasuna gertatuko litzateke.

Horregatik, HLE bati esleitutako ikasleak dituen gela normalizatu bakoitzeko, Hezkuntza Laguntzako espezialista bat edo antzeko pertsona bat ezarri beharko da gutxieneko zerbitzutzat. Era berean ekin zitzaion 2024ko urtarrilaren 16ko Aginduan gizarte-ekimeneko hezkuntza-sektorean deitutako grebari.

Haurreskolak Partzuergoa osatzen duten zentroak irekitzeko beharrari dagokionez, grebarekin bat egiten ez duten langileen lanerako eskubidea babestean gain, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 2009ko urriaren 28ko epaiak adierazi zuen bezala, funtsezko zerbitzua da, bai hezkuntzarako oinarrizko eskubidearen ikuspegitik (Konstituzioaren 27. artikuluan aitortua), bai lan- eta familia-bizitza uztartzeari eragiten dion ikuspegitik, lanerako eskubideari lotuta baitago, gizarte-harremanen izaera ebolutiboaren aurrean gaudelako.

Unibertsitateaz kanpoko ikastetxeak irekitzeko, «ikastetxea irekitzeko» jarduera materialak ez ezik, irakaskuntza-eginkizunerako edo -jarduerarako behar-beharrezkoak diren (eta gutxieneko zerbitzuen izaera murriztaileak eskatzen dituen) «funtzionamendu-errutinak» ere egin behar dira, instalazio edo elementu materialei eta zaintza eta zaintzari buruzkoak; izan ere, adingabeko ikasleak joango diren ikastetxea denez – ezin zaie adingabeei heldutasun-maila bera eskatu beren jardunean eta pertsona heldu bati, hortik ez baita erabat baztertzen ikastetxearen erantzukizuna (Auzitegi Gorenaren 2002ko apirilaren 14ko epaia) –, arreta berezia eskatzen da saihesta daitezkeen arriskuak ezabatzeko edo instalazioak egokiro antolatuz eta mantenduz arrisku horiek murrizteko, bai eta zaintza- eta kontrol-lanak egiteko ere – [...] adingabe edo gai ez direnen zaintza eta zaintza beren gain hartzeko, oro har, 1). Horren ondorioz, zentro horietan gutxieneko zerbitzu gehigarri gisa ezarri beharko da greban aginte-eta/edo zuzendaritza-ahalmena duten pertsonak egotea, prebentzio- eta segurtasun-ardura objektiboki haietara jotzen duten haur adingabeentzat arrisku-foku potentziala dagoen puntuetan kontzentratzeko eskatzeko.

Era berean, Hezkuntza Saileko unibertsitateaz kanpoko hezkuntza publikoko ikastetxeetan eta Haurreskolak Partzuergoko haur-eskoletan grebarako deialdia egin zen 2022ko azaroaren 29ko Gutxieneko Zerbitzuen Aginduan. Agindu hori errekurritu egin zen Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, eta apirilaren 20ko 204/2023

Epaian (1015/2022 Oinarrizko Eskubideak Babesteko Administrazioarekiko Auzi Errekurtsoa), ezetsi egin zuen errekurtsoa, eta berretsi egin zuen aipatu agindua, honako hau arrazoituz: "errekurritutako aginduaren ebazpen-zatiaren lehenengo ataleko 2. zenbakian ezarritako gutxieneko zerbitzu gehigarrien helburua da eskola-umeak babestea eta haien segurtasuna bermatzea, eta horrek, printzipioz, ez du kausa-ondoriorik grebaren iraupenarekin". Berrikiago, baldintza berberetan eman dira 2023ko apirilaren 21eko eta 2023ko urriaren 16ko Aginduak, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimeneko hezkuntza-sektorean bi greba egiteko deialdia egiten duena, bai eta Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Segurantza zuzendariaren 2023ko abenduaren 5eko 4/2023 Jarraibidea ere, Bigarren Lehendakariorde eta Lan eta Enplegu sailburuaren 2023ko urriaren 16ko Agindua interpretatzeari buruzkoa. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko gizarte-ekimeneko hezkuntza-sektorean urriaren 17an, 18an eta 19an eta 2023ko abenduaren 11n, 12an, 13an eta 15ean deitutako greban gizaritari eman behar zaizkion ezinbesteko zerbitzuei eustea bermatzen da.

